

LABek dio «gizartearen ilusioa piztu» behar dela «pasibotasuna» saihesteko

Herritarrek prozesu politikoan «parte hartzea» bilatuko du

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

LABen ustez, euskal gizartea «ikusle pasibo» gisa dabil, indarrean den prozesu politikoan tarteka gertatzen diren «flash batzuei» begira, besterik ez. Halere, sindikatuak uste du herritarrek parte hartzeko gogoia dutela, eta, beraz, «ilusioa pizteko» lan egin behar duela iragarri du.

RAFA DIEZ sindikatuko idazkari nagusiak LABek datoren aldi bultzatu behar dituen azaldu zituen atzo Gasteizen emaniko prentsaurrekoan, eta, sindikalista abertzalearen esanetan, «gizartearen ilusioa piztea» garrantzitsua da orain.

LABen irakurketaren arabera, euskal gizarteak «benetako gogoia du parte aktiboa izateko» abian den prozesu politikoan, baina horretarako biderik ez da jartzen ari, eta, beraz, parte-hartze hori ahalbideratzea hartu du erronka nagusitzat datozen astei begira.

Arriskuetsuena litzateke pasibotasuna hedatzea

«Euskal gizartearen ilusioa piztu nahiz egituratu behar dugu, eta horrela, herritarrengan pasibotasun jarrera nagusitzen joatea saihestu ahal izatea, horixe arriskuetsuena izango litzateke-eta», deklaratu zuen Diezek.



Rafa Diez, LABeko idazkari nagusia, atzo eginiko agerraldian.

«Erantzuna» behar du euskal presoekin zerikusia duen auziak

HIRU lan ardatz nagusi izango ditu LABek datozen hilabeteetan arlo politikoari dagokionez, Rafa Diezek adierazi bezala: «Lizarrako Itunaren garapena, marko juridiko-politiko berria taxutzearen aldeko lana eta presoaren auzia».

Diezen arabera, sindikatu abertzaleak planteatuko du «erantzuna» behar duela euskal presoekin buruzko aferak. Ildo

horretatik, Gobernu espainiarrari egotzi zion presoak erabiltzea abian den prozesu politikoan «truke politikorako nahiz presiorako» tresna bezala. «LABek nahi du presoak presio sozialaren bidez Euskal Herriratzea».

Bestalde, txalotu egin zuen Udalbiltzaren jaiotza eta LAB marko berrirako bere alternatibak emateko gertu dela erantsi zuen.

Ildo horretan, LABen asmoa da gizartea «parte-hartzailea» izan dadin, eta horregatik, sindikalgintzak «parte-hartze soziala bultzatzea» bolada honetako eginbehar nagusietako bat dela uste du.

Diezek ez zuen zehaztu sindikatuek zer planteatuko duten gizartearen parte-hartzea posible egiteko, baina «ekimen zehatzak» badaudela esan zuen. Sindikatuak garai batean egoera politikoa «astintzeko» gauza izan ziren bezala, egun ere proposamenak egiteko gai direla dio. Hala ere, Lizarrako Itunaren esparruan zenbait ekimen izango dira.

Nazionalistak «bartzertzaileak» direla dioten alderdien esanak kritikatu zituen Garaikoetxea Alkartasun Egunean


2.000 lagun inguru bildu ziren herenegun, Lizarrako frontoian, EAko presidentek emandako mitinean

Erredakzioa / Iruñea

AZKEN ASTEOTAN nazionalistak ez diren alderdiek talde nazionalistek «bartzertzaileak» direla leporatu izana kritikatu zuen herenegun Lizarran Carlos Garaikoetxea EAko presidentek. 2.000 lagun inguru bildu ziren EAko Nafarroako Lizarra herrian ospatu zuen Alkartasun Egunean. Bazkalondan Garaikoetxea esan zuen ez dutela «paperik trukatzeko» utziko eta alderdi nazionalistak «bartzertzaileak» direla esatea onartuko. «Bartzertzaileak deitzen gai-

tuzte elkarrizketan herri honetako alde bat bazterrean utzi nahi dutenak eta bake prozesu bat bultzatzen ari garenoi», esan zuen.

Hitzaldian Garaikoetxea egungo prozesua izan zuen mintzagai. EAko buruaren irudiko, «egungo egoera politikoa oso ona da. Aldaketa garaia da eta aldaketa horrek EAk beti markatutako bideari jarraitzen dio; elkarrizketarena eta biolentziaren erabateko akaberarena». Azaroan egingen duten kongresuari begira, «hartutako bidea a proposena» dela esan zuen.



Carlos Garaikoetxea, EAko lehendakaria, Lizarran eginiko ekitaldian.

PPko kide batzuek salatu dutenez, Iturgaitzen alde bozkatzeko presio egin diete

Datorren Kongresuan Gipuzkoako ordezkariak hautatzeko bozketa inpugnatu dute

Erredakzioa / Donostia

CARLOS ITURGAITZ EAeko PPko presidentek atzo adierazi zuenez, «tamalgarrria da alderdi barneko arazoak hedabideetan zabaltzea». Izan ere, atzo *El Mundo* egunkariak kalerratu zuenez, EAeko PPko Kongresuan konpromisario gisa egoteko Gipuzkoako 39 hautagaik prentsohar bat atera dute presioak salatzeko.

El Mundo egunkariaren arabera, presio horien helburua Iturgaitzek EAeko PPko presidente karguan jarraitzea da. Gipuzkoako PPko afiliatuak atzo bozkatu zuten konpromisarioen zerrenda, eta 100 hautagaitik 54 aukeratu behar zituzten. *El Mundo* ren arabera, oharrak dio konpromisarioerako zenbait hautagaik presioak jasan dituztela «hautagaitza atzera botatzeko, baina ez dute onartu».

Bestalde, salatu dute PPko hainbat militantek deiak jaso dituztela, Iturgaitzen hautagaitza defendatuko duten konpromisarioen zerrendak Mayor Oreja eta Arenasen babesa duela esanez. Egunkari berean esaten denez, 100 laguneko zerrenda horretako batzuek zerrenda ofiziala osatzen dute, Iturgaitzen aldeko zerrenda, eta besteek «zerrenda alternatiboa».

Hain zuzen, atzo arratsaldean jakin zen PPko sektore kritikoak atzo arratsaldean eginiko bozketa inpugnatu zuela, izenak markatuta zituzten paperak zeudela-eta.

Informazio horiek polemika sortu dute PPko kideen artean. Ustez prentsa oharra sinatu zuten PPko hiru kidek ukatu egin zuten oharra sinatu zutenik. Alfonso Alonso Gasteizko alkateak ere Gipuzkoan «ezberdintasunak» daudela onartu zuen. Iturgaitzek atzo esan zuen Maria San Gilek bere babesa izango duela «Gipuzkoako PPko aro berrian» presidentzia lortzeko.